

NOLA ERABILI ZUZEU BERRIA?

Zortzi hilabete sarean eman eta gero, Zuzen albistariaren diseinura ohitu zarenean, aldaketekin gatorikizu. Baina ez beldurtu, gauzak erraztu eta Zuzenuri etekin handiago atera diezaiozuen da eta. Hementxe azaltzen dizugu xehe-xehe nola erabili.

-Saioa hasterakoan hainbat funtzio dituzu aukeragai menu desplegable batean:

EDUKIAK SORTU

Bidalketa argitaratu

Sarrera bat argitaratzeko editorea aurkituko duzu hemen. Hiru hutsune dituzu, titularra, sarrera eta testua idazteko. Eskuineko menuen bitartez ordenagailutik fitxategiak igo ahal dituzu edota beste webgune batetik bideoak itsatsi.

Sarrera idatzi

Oharra: Datu guztiak beharrezkoak dira

Titularra:
adib.: Lurrikara bortitza Italian

Laburpena:
Info: Azalean eta beste zerrendetan zure bidalketaren sarreratxo gisa erakutsiko dugun testua.

Testua:

Fitxategiak txertatu
Oharra: Txertatu duzun fitxategiak, erabilera librekoa behar du izan, cc-by-sa lizentziarekin argitaratzeko modukoa. Eskerrik asko.

Zure ordenagailutik igo
Onartutako fitxategi motak: .doc, .odf, .pdf, .mp3, .mpg, .jpg, .gif, .png
Gehineko pisua: 20 Mbyte

Esteka bat itsatsi
Onartutako zerbitzuak: Youtube, Google Video, Dailymotion, Vimeo, Metacafe, Flickr, etc.

ARAKATU...

Hitzordua argitaratu

Kontzertu bat, erakusketa bat, ekitaldi bat... Tresna honen bidez edozein hitzorduren berri eman ahal izango duzu. Sarrera bat idaztea bezalakoxea da, hori bai, gero jar ezazu non izango den eta noiz.

Gaiak:
Bidalketarekin erlazionaturiko eta komaz banaturiko 3-4 gai. adib.: egutegi efektua, klima, Kioto

Eguna :
2009/11/17 Data aukeratu

Amaiera Eguna :
2009/11/17 Data aukeratu

Ordua :

Lekua :

Euskaltube

adib.: <http://www.youtube.com/watch?v=Z2nmM1u6Y3o>

TXERTATU

Laguntza
Argazkiak
Zure sarreraren txertatzeko irudien bila bazabiltza, ondorengo web guneetan mordera aurki ditzakezu:
Flickr
Wikipedia

Esteka bidali

Beste webgune batean irakurritako edukiak gomenda ditzakezu hemen.

Esteka bidali

Oharra: Datu guztiak beharrezkoak dira

Estekaren helbidea:

Zein hedabidetan aurkitu duzu?

Titularra:

Dagokion kaxa:

Estekak

BERO-BERO BARE-BARE

Azken orduko albisteak.

Marinelen senideek borrokan karraituko dute
 Iturria: Berria
 Bidaltzailea: Arantza San Sebastian

Badator Android 2.0
 Iturria: XatakaMovil
 Bidaltzailea: guebs

Arenys de Munt: batu, egin, hedatu
 Iturria: Argia
 Bidaltzailea: NiNeu

Jaurilaritza eta Lehendakariak gabe EAJren lehen Alderdi Eguna
 Iturria: Deia
 Bidaltzailea: NiNeu

Markel Olano: 'Autonomia Erkidego bat gehiago izatea bilatzen dute'
 Iturria: 2arrnews

NIRE ZUZEU

Nire Zuzeu, Zuzeu era pertsonalizatua erabiltzeko tresna da. Gainontzeko erabiltzaileekin harremanetan jarri ahal izango duzu beste Zuzearien artean idatziz edo mezu pribatuak bidaliz. Gainera gustokoen dituzun Zuzearien sarrerak jarrai ditzakezu hemen.

Arbela

Zure artean jarraitzen dituzun Zuzeari edo Gugeularien sarrereren berri izango duzu hemen. Bidaltzen dizkizuten mezu pribatuak eta publikoak ere hortxe azalduko zaizkizu. Pribatuak, noski, zuk bakarrik ikusiko dituzu.

Albisteak Hitzorduak Trepetak Bideoak Argazkiak Zuzeariak **Nire Zuzeu**
Adib.: Donostia Kursala **BILATU**

Zure artean idatzi:

Mezu pribatu gisa bidali (bestela agerikoa izango da) **BIDALI**

Noren partez: H. Etxebarria

Sarrera berria: Veleiako misterioa, ezjakin batek ahal bezala kontatua (1)

2009/11/01 16:46



Feng Bai Yeah

Nire Arbela

Jarraitzaileak

Jarraituak

Ezarpenak

Zer da Nire Zuzeu?

Zure gustora moldaturiko Zuzeu

Jarraitzaileak eta jarraituak

Zure jarduna jarraitzen duten erabiltzaileak eta zuk jarraitzen dituzun Zuzeulari eta Gugeulariak ikusiko dituzu hemen. Gainera, eskuineko ikonotxoan klik eginda zure jarraituei mezuak bidaltzeko aukera duzu.




Albisteak | Hitzorduak | Trepetak | Bideoak | Argazkiak | Zuzeulariak | **Nire Zuzeu** | Adib.: Somalia piratak | BILATU

Zure 5 jarraituak

- ZuZeu** Lorem ipsum dolor sit amet
- Eli Epelde** Lorem ipsum dolor sit amet
- A. Etxaniz** Lorem ipsum dolor sit amet
- I. Martinez** Lorem ipsum dolor sit amet

Ezarpenak

Ezarpeneatan interesatzen zaizkizun Gaiak eta Lekuak gehitu ditzakezu. Bila ibili beharrean, Gai eta Leku horien inguruan albiste bat argitaratzen denean Nire Zuzeu bidez jakinaraziko zaizu, erosotasun osoz eta denborarik galdu gabe. Bertan Nire Zuzeu-ren diseinua ere aldatu ahal izango duzu.



Zure inguruan | Zu sarean | Pasahitza | **Nire Zuzeu**

Hauxe duzu zeure **Arbelean** jasoko dituzun oharrak finkatzeko legua.
 Zeure intereseko gai eta lekuak hemen finkatzen badituzu, haiet dagozkien sarrerak jasoko dituzu zeure **Arbelean**.
 Gauza bera egin dezakezu Zuzeulari eta Gugeulariekin: zeure interesekoak hemen finkatu eta horiek jarrituko dituzu Nire Zuzeun.

Zure gaiak

Adibideak: Athletic, Euskara, Internet...

politika
kazetaritza
euskara

Gai berri bat jarraitu: **GEHITU**

Jarraituak

ZuZeu

Eli Epelde
A. Etxaniz
I. Martinez
H. Etxeberria

Zure lekuak


Adibideak: Iruña, Usurbil, Baiona...

Donostia

Leku berri bat jarraitu: **GEHITU**

Diseinua ezarri

Aukeratu ezazu Nire Zuzeuren atzekaldearen diseinua.



EZARPENAK

Amaitzeko, Ezarpenetan zure **profila eguneratu**, zure bitzta digitala ezagutzera eman –zu sarean- eta **pasahitza aldatzeko** aukera duzu.

Zure profila eguneratu

Zure inguruan:

E-posta:

Izen abizenak:

Aurkeztu zeure burua:

Prohintzia:

Zure egungo iruditxoa:



Zure iruditxoa aldatu:

Zure profila eguneratu

Zu, sarean:

Zure web gune edo bloga:

Mikroblogintza (Twitter, Jaiku, Indi.co, etab.)

Sare sozialak (Facebook, Tuenti, LinkedIn, ...)

Argazkiak (Flickr, Picasa, Fotolog, etab.):

Arbeleko mezuak:

Hantxe ikusi nuen, neskatxa bat plazan...

2009/11/04 12:47

Mikel Lasa

ZUZEULARIA
 Zuzeuko **editorea** 2009-05-02 egunetik.
 Zuzeuko erredakzio taldekoa

Zure profila editatu

Bio

Kazetari eta gidoigile, Zuzeuko erredakzioan ari naiz orain. Eta zoro moduan nabil aldi berean komunikazio politikoan master bat egiten. Oso gustoko dut argazkilaritza eta Realzale amorratua naiz. Esaldi bat, "An adventure is only an inconvenience rightly considered. An inconvenience is an adventure wrongly considered." -G. K. Chesterton

Sarean zehar



<http://amenoscuarto.wordpress.com/>

Bere azken sarrerak



EUSKAL HERRIA
 Tourist edo
 egiazko
 turismoa


2009-07-20 @
 09:00
 0 iruzkin

Bere azken estekak

BERO-BERO BARE-BARE


Azken orduko albisteak.

Donostiak metroa izango du

 Iturria: El Diario Vasco
 Bidaltzailea: Mikel Lasa

#ZUKA

Twitterreko erabiltzaile bazara jarri arreta. Eta ez bazara, zeren zain zaude? #zuka Zuzeun eduki interesgarriak partekatzeko bide errazena da. Twitterren jartzen dituzun esteka horiek Zuzeuko irakurleekin ere partekatu ditzakezu orain. Egin behar duzun gauza bakarra ondorengoa da: idatzi mezua, aipatu zein webgunetakoa den edukia, ezarri esteka eta gero idatzi #zuka zure tweet-aren amaieran. Zuzeuko azalean agertuko da, edozein irakurleren eskura.



Home Profile Find People Settings Help Sign out

What are you doing? 78

Antzerkiolaren arakastaz. @argia. <http://ttiki.com/7701> #zuka

Latest: que hacer con Google wave aparte de hacer el chorra con colorines y fotos <http://bit.ly/SfNRq> 1 day ago

Home

mrlasa
 167 tweets

124 following 120 followers 5 listed

Co-Tweet
 a conversation management tool for businesses using Twitter.

Home

Natoraton <http://twittr.com/nt92n> - A Rainy le narece mix bien